



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



OSTALARITZA MAHAIA / MESA DE HOSTELERIA

2022ko uztailak 21

GAI-ZERRENDA / ORDEN DEL DÍA:

- ✓ Ongietorria/Bienvenida
- ✓ Sektorearen egungo egoeraren azterketa/ Análisis de la situación actual del sector.
- ✓ Bidalitako dokumentu erantsiari buruzko zalantzak / Dudas con el documento adjunto enviado
- ✓ Informazioa hurrengo gaiei buruz/ Información relacionada con:
 - Getxo Bono 2023
 - Eskaintza eta eskaria; tokiko ostalaritza dinamizatzeko jarduera-plana // Análisis Oferta y demanda; plan de actuación para dinamizar la hostelería local
 - Terrazak / Terrazas
 - GetxoAktibaTU! 2022
 - Kontrataziorako diru laguntzak / Ayudas a la contratación 2022
 - Foroko postu hutsak betetzea / Cobertura de vacantes Foro
- ✓ Ideia eta proposamen berriak: taldeko eztabaida / Nuevas ideas y propuestas: debate grupal.
- ✓ Galderak, iradokizunak eta bestelakoak / Preguntas, sugerencias y otros.

BERTARATUAK: (% 22)

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoa emanda	Arrazoa eman gabe
Algorta-Andra Mariko jatetxeen ordezkaria	Monica Sésar (NIKKOU)	X		
Algorta-Andra Mariko taberna eta kafetegien ordezkaria	Jorge Alonso (TXINUK)	X		
Ereaga, Portu Zaharra, Kirol Portua eta Neguriko taberna eta kafetegien ordezkaria	Kotska Mandaluniz (BORDA ERRETEGIA)		X	
Ereaga, Portu Zaharra, Kirol Portua eta Neguriko jatetxeen ordezkaria	Postu hutsa			
Areetako jatetxeen ordezkaria	María del Fresno (La KAZUELA)			X
Areetako taberna eta kafetegien ordezkaria	Ana García (PIANAMUL)		X	
Romoko tabernen ordezkaria	Per Urriolabeitia (LA MONA)			X
Romoko jatetxeen ordezkaria	Postu hutsa			
Getxo Enpresa	Desiree Yeste (OKU LOUNGE)		X	
ASOHGE	Jorge Alonso	X		
Romo Bizirik	Jon Moran			X
Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	Mirene Zabalgogezkoa	X		
	Sonia Urdiain	X		

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Agurtu egin da, eta, ondoren, azalpen txiki bat eman da sektorea eta denboraldia nola doazen azaltzeko.

Ildo horretatik, bileran batutakoek honako hau adierazi dute:

Lehengaien, argiaren (faktura bikoiztera iritsiz), garraioen eta abarren garestitzea aipatu du sektoreak, bai eta albisteez egunero sortzen duten ziurgabetasuna, ez baitute asko laguntzen. Aipatu dute ez direla inolaz ere jasanarazten ari PSParen igoera osoa, eta, beraz, marjinak txikiagoak direla.

Gainera, esan dute establezimenduetako tiket bakoitzeko batez besteko kontsumoak behera egin duela, bai eta guztizko fakturazioak ere.

Era berean, adierazi dute kontsumo-ohiturak aldatu egin direla, bai eta bezero mota ere, eta horrek egokitzeko beharra ere sortzen duela. Zehazki, aipatzen dutenez, eremu batzuk modan jarri dira, baita establezimendu batzuk ere. Horrez gain, herritarrentzako pasabideetan/sarbideetan sortzen diren zailtasunei buruz ere hitz egin dute.



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

Bestalde, adierazi dute beharrezkoa dela araudia modu berean aplikatzea establezimendu guztiei (leihoen bidezko arreta, hiri-altzariak terraza pribatu gisa erabiltzea, etab.), ematen diren zerbitzuak kalitatezkoak izan daitezen eta establezimenduak baldintza berberetan lehiatu daitezen.

2. Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa

Hainbat alderdi politikok eta ordezkari egindako iradokizunen ondoren, hartutako metodologia berria azaldu du Mirene Zabalgogeoazkoak, hots, egindako proiektuen aurrerapena eta prozesua adierazten duen laburpen-fitxa bilera baino lehen bidaltzekoa. Ez da horren inguruko galderarik egin.

3. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

a) GETXO BONUA 2023

Getxo Bono 2022ra atxiki diren establezimenduen kopurua urria dela aipatu ondoren, bileran planteatu da ea eredu sektorearentzat egokia den ala ez. Ekimenari atxikitze egin beharreko paperak gehiegizkoak direla jakinarazi dute, astelehenetik ostegunera baliagarria izan daitekeela –baina asteburuetan kudeatzen zaila–, eta, bestalde, ekimenaren komunikazio-kanpaina –izaera orokorragoa du– ez dela gazteengana iristen (tokiko ostalaritzaren ehuneko handi batentzat interesekoa den publikoa). Sektoreari eskatu zaio proposamenak egin ditzala deialdi berrirako eta balora dezala ekimena ezartzea. Elkarriketaren harira, agian sektorerako tresnarik baliozkoena ez dela aipatu da, eta, agian, beste udalerrri batzuetan egiten diren ekintzak antola daitezkeela, hala nola, pintxo lehiaketa, aste gastronomikoa, etab.

b) Eskaintza eta eskaria aztertzea; tokiko ostalaritza dinamizatzeko jarduketa-plana

Ostalaritza sustatzeko ekintzak udalerriko ekitaldi garrantzitsuen egunekin edo/eta horien bezpera egunekin lotzeko aukerari buruzko ideiak partekatu dira.

c) GetxoAktibaTU! 2022

Mirene Zabalgogeoazkoak GetxoAktibaTU! programa zertan datzan azaldu du. Eta proiektua berrabiaraztearen alderdi teknikoaren berri eman du, bai kalean, bai establezimenduetan. Gainera, enpresak parte hartzera animatu ditu, programarako jarduerak antolatuz: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Programak - GetxoAktibaTU](#)

d) 2022ko kontrataziorako laguntzak

Jakinarazi da aurtengo urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean langileak kontratatu dituzten establezimendu guztiek aukera izango dutela, gainerako baldintzak betetzen badituzte, laster argitaratuko diren kontrataziorako laguntzak eskatzeko: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Dirulaguntzak - Hurrengo dirulaguntzak kontrataziorako 2022](#)

e) Foroko postu hutsak betetzea

Gogorarazi nahi dugu postu hutsak ditugula oraindik ere, eta komenigarria izango litzatekeela horiek betetzea, eremu eta establezimendu mota guztietako informazioa, proposamenak eta iradokizunak lortzeko. ASOHGEri laguntza eskatu zaio estaldura sustatzeko.

f) Galderak, iradokizunak eta bestelakoak:

- Gizarte-zerbitzuen arloak bultzatutako ekimenari buruzko informazioa helarazi zaio sektoreari –berdintasuna, sentsibilizazioa eta sektorearen prestakuntza genero-indarkeriaren arloan–. Halaber, saltoki guztiek kanpaina ikusarazteko eskatu ahal izango duten merchandising materiala eman da.
- Euskal Herria kalea oinezkotzeari buruzko informazio-eskaera; hasiera batean onartutako proiektua Gainza aparkalekua irekitzeak baldintzatzen zuen (2021etik dago martxan).
- Getxon ostatu-eskaintza alternatiboa zabaltzeko proposamena, ekimen publikoaren bidez: CEDEMOSen eraikinean ostatua (ideia) eta autokarabanen aparkalekua.
- Sektorean zenbait altzari baimenik gabe ateratzeak dakarren bidegabekeria planteatu da: kanpoalderako leihoak, hiri-altzarien erabilera, eta abar.

Hurrengo urratsak:

- Irailak 13 (14:30): Enpresen Kontsulta Foroa. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte. Ostalaritza mahaiaren proposamenak bertako ordezkariak defendatuko dituzte – Desiré Yeste (OKU Lounge-Getxo Enpresa), Jorge Alonso (Txinuk-ASOHGE) eta Jon Morán (Topa Taberna-Romo Bizirik)

MAHAIAREN ERABAKIAK (2022/07/21):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. E-maila bidaltzea bete beharreko postu hutsak gogorarazteko	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Postu hutsak bete daitezen sustatzea	ASOHGE	Aurreko puntutik aurrera eta ahal bada irailaren 13a baino lehen
4. Euskal Herria kalea oinezkotzeari buruzko informazioa biltzea eta helaraztea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
5. Sektorearen egoera edo/eta kokapena	Turismo	Irailaren 8a baino



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

hobetu dezaketen proposamenak igortzea 2023an egikaritzeko	sektoreko enpresak	lehen
6. GetxoBono 2023an parte hartzeko interesik baden jakinaraztea, eta egoki iritzitako iradokizunak eta hobekuntza-proposamenak egitea	Turismo sektoreko enpresak	Irailaren 8a baino lehen